



Bilbo, 2010eko apirilak 17

Barakaldo, hiri birtuala

Jadanik egin dute. Jadanik eraitsi dute *Orconera Iron Ore* enpresak Lutzanan kokatuta zuen azken txalet historikoa. Lehenengo langile-koloniaren azken aztarna, Euskal Herrian XIX. mendean eraikitako “garden-city”ren lehenengo adibidea.

Eusko Jaurlaritzako Industri Ondarearen Inbentario Nagusian eta Industri Ondareari eta Herri Lanari buruzko Arloko Lurralde Planean ageri arren, Kalifikatu beharreko Kultura Ondasun gisa jaso da. Hala ere, Barakaldoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren bidez egituraren ikuspegitik babestutako multzoa eta udal-ondarearen zati izan arren. Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak eta bestelako erakundeek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburutzari hori babesteko eskabidea egin arren. Udal-administrazioak eta administrazio autonomikoak gure garaian iraunkortasun- (Agenda 21), berrerabilera-, zaharberritze- eta birgaikuntza-irizpideak gaurkotuta daudela uste badute ere. Egia esan, Barakaldoko udalak ez du erakutsi inolako interesik hori artatu eta balioari eusteko. Burtzeñako Sefanitro zaharreko ondare arkitektoniko ikusgarriarekin edo zentral termikoarekin egin den bezala. Izan ere, industri ondare horren berrerabilera eta balioa direla medio, Burtzeñako etorkizuneko Enpresa Parkean zerbitzu-eraikin eta ekipamendu berriak ezarri ahal izango lirateke, bai eta Sefanitroko lursailean diseinatutako auzo berrian ere. Bien bitartean, Orconerako zamatoki zaharra erabat bertan behera utzita dago, Ilgner eraikina ez dago gaituta bisitak egiteko, “Teknikaren Museoa” “txitxarrilloak” gauzatzeko erabiltzen da, eta Udala handinahiko turismo-gidak egiten ditu.

Begirunez,

Sin.: Javier Puertas

IOHLEEren lehendakaria

